


KONPOSIZIO ZENTESIMALA: ARIKETAK


ARIKETA #01

Produktu laktikoei usaina ematen dien substantzietako bat zetona jakin bat da. Zetona honen 3 gramoren errekuntzak 8,10 g karbono dioxido eta 3,33 g ur ematen ditu. Zetona honek karbono, hidrogeno eta oxigeno besterik ez du. Kalkulatu formula enpirikoa. C=12; O=16; H=1.



ARIKETA #02


Konposatu organiko batek karbono, hidrogeno eta oxigeno soilik du. 250 °C eta 750 mmHg-tan substantzia horren 1,65 gramoren bolumena 629 mL-koa da. Bere analisi kimikoaren datuak hauek dira: C=%63,1 eta H=%8,7. Kalkulatu bere formula molekularra. C=12; O=16; H=1.



ARIKETA #03

Substantzia organiko batek karbono, hidrogeno eta oxigeno du soilik. Baldintza normaletan lurrunaren dentsitatea 3,30 g/L-koa da. Konposatu honen 0,275 g errekuntzetatik sortutako datuak hauek dira: 0,654 g karbono dioxido eta 0,3375 g ur. C=12; O=16; H=1.

- a) Kalkulatu formula molekularra
- b) Idatzi eta izendatu hiru isomero A, B, C non
 - a. A substantziaren oxidazioak azido karboxilikoa ematen du
 - b. B substantziaren oxidazioak zetona ematen du
 - c. C isomeroak ez ditu hidrogeno zubiak ematen



ARIKETA #04

Substantzia organiko baten dentsitatea, gas egoeran, 1,28 g/L-koa da 56°C eta 454 mmHg-tan. Bere konposizio zentesimala hauxe da: C=%62,0 H=%10,4 eta O=%27,6. C=12; O=16; H=1.

- a) Kalkulatu formula molekularra
- b) Idatzi eta izendatu bi isomero A eta B non
 - A erraz oxidatzen den eta B ez